

BALORAZIO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

INGURUMENEN UNITATEA
HERRILANETAKO SAILA

✓ **PROPOSAMENA**

Herriko garbiketa zerbitzua ugaritu, batez ere herrian ospatzen diren jai, jaialdi eta sagardotegi garaietan. Garai horietan ere edukiontzia ugaritu eta etengabe hustu. Eta erabiltzen diren ontziak soilik berrerabilgarriak izan daitezten bultzatu.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Udalak maiatzean aldatu du kale garbiketa zerbitzua. Orain zerbitzua Garbitania enpresa publikoak ematen du. Ikusi egin behar da, zerbitzu aldaketa horrek ekarri dituen onura eta kalteak. Oraindik ez da denbora nahikoa pasatu aldaketa horrek garbiketan zer suposatzen duen jakiteko.

Beraz, kale garbiketari dagokionean itxaron dezagun aldaketak zer suposatzen duen ikusi arte. Beste gauza bat da edalontzi berrerabilien gaia. Inondik ere, Ingurumenaren ikuspegitik garrantzi handiko gaia

Hori esan eta gero, adierazi edalontzi berrerabilgarrien gaia lantzerakoan bi eszenatoki bereiziko nituzkeela:

Bata da, auzoetako jaiak.- eszenatoki horretan erraza iruditzen zait edalontzi berrerabilgarriak sustatzea; izan ere, auzoetako jaietan inplikatuak egoten diren tabernak gutxi izaten dira eta horrek elkarren arteko koordinazioa erraztu egiten du.

Zaku berean sartuko nituzke puntualki ospatzen diren festa edota jaiak: Sagardo festa, garagardo eguna, Estremadurako jaiak eta abar...

Beste eszenatokia ordea, zailagoa iruditzen zait; hau da, San Juan jaietakoa eta zer esanik ez Txotx garaikoa. Horietan ere posible izango litzateke baina konplikatuagoa iruditzen zait.

Azken horietan, zer hartu behar da kontuan, alde zaharra bakarrik? Herriko taberna guztiak? Gauzak ondo egitera eta arrakasta nahi izanez gero asko kontzientziario eta inplikazio maila altua lortu behar da.

Hori guztia lantzeko proposatzen dut antzeko lanetan aditua den enpresaren baten laguntza eskatzea eta hari eskatzea gaia lantzeko eta hiru helburu markatzea:

- 2019 urtean gaia lantzea, herritarrak, tabernariak eta Udalak parte hartuz. Irizpideak finkatzea eta araudia prestatzea.
- 2020 urtea: Auzoetako jaietan edalontzi berrerabilgarrien erabilera sustatzea (Etxeberriko jaiak, Martindegikoak, Txantxillakoak, Portukoak, Karabelekoak, Latsuberri eta ahaztu zaizkidan beste guztikoak)
- 2021 urtean: San Juan jaietan eta Txotx denboraldian ere berrerabilgarrien erabilpena.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

- Lanketa egingo duen enpresaren kontratazioa: 20.000 €
- Edalontzien erosketa (10.000 edalontzi): 10.000 €

Hori guztia BEZ kanpo.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

Garrantzizkoa deritzot ingurumenaren ikuspuntutik

Epeak: 2019-2021 (balorazio teknikoan proposatzen diren epealdiak)

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Ingurumen Unitatea, parte-hartzea

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

- Enpresaren kontratazioa: azterketa eta lan teknikoa Ingurumena: 02.227.07.172.20
- Edalontzien erosketarako dirua berriz, material beste ingurumena: 02.226.99.172.20

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Aurrera

